

"UPV/EHUko Ikertzaile Doktoreen Especializaziorako Kontratazioa Egiteko Deialdia 2016"

OHIKO GALDERAK

2016/06/07an eguneratua

GARRANTZITSUA: Eskarien kopurua handia dela kontutan hartuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik, egin kontsulta, mesedez, ohiko galderen zerrenda honetan, 2016ko ekainaren 10era arte eguneratuko delarik.

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, "Doktoreen especializaziorako deialdia" adieraziz mezuaren gaian.

ATXIKIPEN ZENTROA

Ikerketarako laguntza eskatu ahal dut UPV/EHUtik kanpoko zentro batean egiteko, hala nola, enpresa batean edo unibertsitatetik kanpoko ikergune batean?

Ez. Deialdiaren 2.2 oinarrian adierazten den bezala: "Kontrataturakoa (...) UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik".

DOKTOREGOA LORTU DENEKO URTEA

Aurreikusita dut tesia 2016an defendatuko dudala, aurkeztu ahal dut orain eskaria?

Deialdi honetan parte ahal izateko, eskatzaileak egiaztatu beharko du doktore titulua 2016ko ekainaren 10a baino lehen lortuta duela, eskariak aurkezteko epearen amaiera data baino lehen.

Zein litzateke doktoregoa lortzeko azken data 3.2 oinarriko betebeharra betetzeko?

Ezin dira hiru urte baino gehiago iragan lehenengo doktore tesiaren defentsa egin zeneko datatik eskaerak aurkezteko azken egunera bitartean.

Aipatu epea kontatzerakoan ez dira kontutan hartuko Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko atsedenaldiak, gaixotasun larriagatiko edo istripuagatikoaldiak; betiere, medikuak emandako bajak hiru hilabete edo gehiagotakoa izan behar du.

LEHENAGOKO DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA

Laguntza eskatu ahal dut antzeko laguntzarik izan badut unibertsitate honetan edo besteren batean?

Ez, laguntza hau bateraezina da antzeko ezaugarriak dituzten laguntzak lehenago edo orain jasotzearekin, bai UPV/EHUan nola beste unibertsitateetan. Arau honek duen salbuespen bakarra da *Doktoratu berriak UPV/EHUan doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte kontratatzeko deialdian* lortutako laguntzen kasua.

IKERTALDEA

Zer da ikertalde aitortua?

ikertalde aitortua izango da UPV/EHUK edo Eusko Jaurlaritzak antolatutako taldeetarako deialdiren batean finantzaketarik jaso eta 2016an aktibo dagoen ikerketa-taldea.

Zer gertatzen da Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldeen jarduerak (2016-2021) sustatzeko laguntzen deialdian eskaria egin eta oraindik ebazpenaren zain diren ikertaldeen kasuan?

Eskatzaileak gainerako baldintzak betetzen baditu, eskariak behin behineko onartuko dira Euskal Gobernuaren deialdia ebatzi zain. Euskal Gobernuaren aitzatespenik jasoko ez duten ikertaldeek abalaturako eskariak bertan behera geratuko dira eta ez dira ebalutzera bidaliko.

Eskaria aurkeztu ahal du nahiz eta abalaturako duen ikertalde Euskal Gobernuak eta UPV/EHUK aintzat hartuta ez izan?

Bai, baina eskaria ikertalde aitortu batek abalatu ezean, 6.2 oinarriak jasotako kasuan egongo ginateke eta, orduan, proposaturako taldeak baldintza horiek bete beharko ditu.

Zer gertatuko litzateke ikertalde berak eskari bat baino gehiago abalatzearabakiko balu?

Ikertalde bakoitzak pertsona bakar baten eskaria besterik ezin du abalatu deialdi honetan. Baldintza hau bete ezean, deialditik kanpo geratuko dira ikertaldeak abalaturako eskari guztiak.

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zer nolako ezaugarriak dituzte eskaintzen diren kontratuak?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen 22. artikuluari jarraitzen diote. Kontratuaren iraupena urtebetekoa da, beste urte batez luza daitekeena, aurrekontu zuzkidura nahikoa egonez gero eta onuradunak deialdiaren 4.2 oinarrian ezarritako baldintzak beteko balitu.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2017ko urtarriletik aurrera formalizatuko lirateke.

Eta atzera dezaket lanean hasteko data?

Bai, gehien dela, 6 hilabetetara.

Kontratu hau bateragarria al da beste batzuekin?

Ez.

Laguntza hau eskatu ahal dut 14/2011 legearen 22. artikuluko kontraturik izan badut?

Bai, baldin eta kontratua sinatzerakoan onuradunak ez badu edozein administrazio publikotan era honetako kontratu modalitaterik izan hiru urte baino gehiagotan.

ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Ezinbestekoa al da zuzendari zientifikoak seiurteko aktibo bat izatea?

Zuzendari zientifikoak izan beharko du, gutxien dela, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketa seiurteko bat edo pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibo baliokidea).

Laguntza emanen balitzait, zein sail edo instituturi atxikiko nitzaioke?

Proposatutako zuzendari zientifikoaren sail edo institutuari atxikiko zintzaizkioke.

Zer beste baldintza bete behar du proposatutako zuzendari zientifikoak?

UPV/EHUrekiko lotura funtzionarial zein estatutu edo lan kontratuaren bidezkoa izan behar du, eskaria aurkezteko unean eta laguntzaren iraunaldi osoan zehar (bi urte).

Proposa al daiteke Ramón y Cajal edo Ikerbasque ikertzaile bat zuzendari zientifiko gisa?

Bai, gainerako baldintzak betetzen baditu.

ESKAERAK AURKEZTEA

Nola aurkeztu behar dut eskaera?

Eskariak paperean aurkeztu beharko dira, eskatutako CD, DVD edo USBrekin batera, UPV/EHUren erregistroetan, posta zerbitzuaren edozein bulegotan, gutunazal irekian bertako pertsonalak eskariaren lehendabiziko orria zigilatuko badu, edo nolana ere, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/92 legearen 38.4 artikulua dioen moduan.

ZUZENKETA: UPV/EHUraino joan behar al dut dokumentazioa aurkeztera?

Ez. Eskatzaileak posta zerbitzuaren edozein bulegotatik bidal dezake eskaera, ekainaren 10era arte (hori barne). Horretarako, dokumentazioa gutun-azal ireki batean eraman beharko du eta posta bulegoko langileek eskaeraren lehenengo orria zigilatzen dutela bermatu beharko du, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Ondoren, dokumentazioa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Ikerkuntzarako deialdien atala
Errektoregoaren eraikina
UPV/EHU
Sarriena auzoa, z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?
Erregistro bulegoetarako buruzko informazio guztia honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

ZUZENKETA: Zer ordutara arte egongo dira irekita erregistro bulegoak ekainaren 10ean, alegia, aurkezteko epearen azken egunean?
Erregistro bulegoak 13:00etan itxiko dira egunero ekainaren 1etik aurrera, udako lanaldi jarraitua baita.

Dokumentu guztiak epearen barruan entregatu ezin izango banitu, nire eskaera atzera botako al litzateke?

Ez, baldin eta gutxienez eskaeraren lehenengo orria epearen barnean erregistratzen baduzu. Ondoren, eskariak aurkezteko epea amaitu eta hogeiki egun naturaletara, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak zuzenketa zerrenda argitaratu eta 10 egunen epea irekiko du falta zaizun dokumentazioa aurkezteko. Epe hori amaitutakoan, ezin izango da beste dokumentazio gehigarririk bidali eta ez da aurkeztu gabeko dokumentaziorik berriz erreklamatu. Beraz, osatu gabeko eskaerak bertan behera uzten direla ulertuko da.

Aurkeztu ahal ditut tesi zuzendarien eta besteren sinadura digitalak?

Sinadura digitalak onartuko dira baldin eta honako sistema hauetako baten bidez aurkezten badira: NAN-e, administrazio publikoek aintzatetsitako ziurtagiri elektronikoa eta abar. Ez da inola ere eskaneatutako sinadurarik onartuko, paperean aurkezteko eskatzen diren dokumentuetan. Kasu honetan, eskuiskribatutako sinadura jatorrizkoak eskatuko dira dokumentazioa osatu eta zuzentzeko epean.

Eskaria egin ahal dut Ikertu Online aplikazioaren bidez?

Ez, aplikazioa ezin da erabili deialdi honetarako.

Europa Batasunetik kanpoko ikertzaile atzerritarrek eskaririk egin ahal dute, nahiz eta Espainian bizitzeko baimenik oraindik ez izan?

Bai. Pertsona hauek tramitatuko ahal dute Espainian bizi eta lan egiteko administrazio baimena, kontratua sinatu baino lehenago.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Zertzuk dokumentu aurkeztu behar ditut paperean eta zertzuk euskarri digitalean (CD, DVD edo USB bidez)?

- a. Eskari orria: paperean, PDF eta Word artxibo gisa eskatzen da.
- b. Sailaren baimena: Paperean besterik ez.
- c. Eskatzailearen CV: PDFan besterik ez.
- d. Zuzendari zientifikoaren CV: PDFan besterik ez.
- e. Doktore titulua: paperean eta PDF gisa.
- f. NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia: paperean eta PDF gisa.
- g. Bizileku baimenaren kopia: paperean eta PDF gisa.
- h. Lan bizitzaren ziurtagiria: paperean besterik ez.
- i. Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria: paperean besterik ez.

CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko dokumentazioa agertu behar dut?

Deialdiaren 11. oinarrian adierazitako dokumentazioa besterik ez da aurkeztu behar. Hala ere, laguntza emango balitzaizu, jatorrizko ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzu, egiaztatu ahal izateko.

Doktore tituluaren jatorrizko dokumentuak eta euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu behar al dira?

Ez, fotokopiak aurkez daitezke. Laguntza eskuratzen baduzu, kontratua sinatu aurretik jatorrizkoak aurkeztu beharko dituzu, egiaztatzeko. Jatorrizkoak aurkezten ez badira edo alegatutako merezimenduak egiaztatu ezin badira, onuradunak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Euskararen jakite mailaren ziurtagiria agertu behar al da, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan?

Bai, kasu honetan eskatzaileak ere legokiokoen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu al dezaket?

Ez, alegatutako merezimenduek 2016ko ekainaren 10a baino lehen eskuratutakoak behar dute izan.

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak behar dute izan ala konpultsatuak?

Ez, fotokopiak aurkez daitezke. Laguntza eskuratzen baduzu, kontratua sinatu aurretik jatorrizkoak aurkeztu beharko dituzu, egiaztatzeko. Jatorrizkoak aurkezten ez badira edo alegatutako merezimenduak egiaztatu ezin badira, onuradunak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Non eskatu behar dut Lan Bizitzaren Ziurtagiria?

Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara joanda edo esteka honetara sartuta eska dezakezu:

<https://w6.seg-social.es/SSC/SwscSeControlador?opcion=1>

Tramite hau dohainekoa da.

Nork sinatu behar du sailaren edo institutuaren baimena?

Dokumentu hau, proposatutako zuzendari zientifikoari dagokion saileko edo institutuko zuzendariak sinatu behar du.

HIZKUNTZAK

Eskaera euskaraz aurkeztu ahal dut?

Jakina. Eskaria euskararik ez dakien pertsonalak ebaluatu behar badu, harremanetan jarriko ginateke zurekin eta bi aukera eskainiko: itzulpena enpresa espezializatu bati agindu eta gero zeuk ontzat eman dezazun edo, eskatzaile gisa, zeuk denbora arrazoizko batean itzultzeko aukera izatea.

Eskaera ingelesez aurkeztu ahal dut?

Bai.

Euskara jakitea ezinbesteko baldintza al da deialdi honetan parte ahal izateko?

Ez. Euskara jakitea merezimendu gisa balioetsiko da eta honako era honetara puntuatuko da:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk. 2016ko ekainaren 10etik aurrera lortutako ziurtagiriak ere ez dira aintzat hartuko.

DEIALDIAREN TRAMITAZIOA

Noizko aurreikusten da deialdia ebatzea?

Deialdia argitaratu eta sei hilabetetara ebatziko da beranduen.